

anaitasuna

APRILLA (4) 1966 — XIII URTEA — N.º 134 — Dep. Legal S. S. 1092-1959 — Zuzendaritza: Bilbon. — Arantzazuko Irarkolan.

Gure folklorea "ye-ye"-kin naastu?

Denpora asko ez dala periodiku baten artikulu amorratu bat ikusi neban. Artikulisteak bihurtu egoan ia gure euskal-dantza galduko eta iakun "ye-ye" dantza orren aurrean. Pregunta batzuk egiten abazan: "Zer egin bear da gure euskal-dantza folklorikoagaz? "Ye-ye"-kin naastu? Garbi itxi?" Ara or artikulu aretan egiten ebazan preguntak.

Eritxiak

Batzuk diñoe naastu egin bear dala. Naaste onek on asko ekarriko leukela. Baiña geienak ezetzera joten dabe. Eta askok —piska bat erregatuta ziur— ori disparte aundi bat besterik ez dala diñoe.

Donostiko eszenariora eroan nai izan da euskal-dantza eta "ye-ye"-ren naastea, au da, euskal-dantza "ye-ye"-aren ritmo piskagaz naastu eta aola dantzatu. Jenteak periodikue-tan olako notizia ikusi dabe-nean karraxika jarri da. Eta diñoe ori egingo balitz euskal-dantzaren profanaziño bat izango litzakela. Eta gaiñera entzun da: "Euskal-dantzak ez dauka "baltzen" ritmoare-kin zer ikusirik.

Zure eritxia?

Eta zuri, irakurle, zer iru-dituten iatsu naaste au? Zelan

ikusiko zenduke Wilson jauna euskal-abarka, blusa ta txapelagaz jantzita zortziko bat In-glaterra dantzaten? Euskal-personalitatea galtzen ari ga-ra akaso onelako naasteagaz?

Pregunta batzuk besterik ez dira oneik, zeuk zeuretzat erantzuteko eta zeuk zeure bu-ruz materia au kritikatu-teko.

Beste baten iritxia

Gaurko egunean gauzak arin baño ariñago dabiz. Eu-ropa batasun bat egiten ari da, naiz ideetan naiz beste gauzetan. Esate baterako: Ale-manian pasaten dan gauza in-portante bat derrepente —edo denpora baten— Euskalerrian ikusten dogu telebisiñoan. Gaur dana ikusten dogu. Dana eta danok gaiñera. Ez dago sekreturik. Eta Euskalerriko gazteak be edozer naiz ikusi naiz egiten dabe, komunikazi-ñozko medioak ariñak eta (Iruigarren orrira)



Gernika ensayo saria

Gernika sortu zanetik seireungarren urtea ospatzeko eskeintzen da.

Antolatzaile, Euskaltzaindia da, Bilboko "Radio Po-pular"-eko Euskal Folklore ta Kultura Taldearen lagun-tzaz eta Gernika-ko Ayuntamentuaren babespean.

Oiñarriak onek izango dira:

1. Euskeraz edozein euskalkitan egindako ipuiñak sarituko dira. Sekula argitaratu gabeak izan bear dabe eta luzeera, geienez folio neurriko amabi orri alde bakar batetik makiñaz idatziak eta lerrotik lerrora uts bat utziaz.

2. Lanak Euskaltzaindiaren etxean artuko dira (Ri-bera, 6 — Bilbao) 1966 agostuaren 31-rarte.

3. Iru kopia bialdu bear dira lema bategaz firma-tuta, lemaren giltza estalki itxi batean dagoela, au da, autorearen izena eta zuzenbidea.

4. Juradu bat izendatuko da eta artutako lanak ikusi ondoren urrengo sari onek, Gernika-ko Ayunta-mentuak eskeiñiak, emongo ditu:

- | | | |
|----|--------|------|
| 1. | 10.000 | Pta. |
| 2. | 6.000 | " |
| 3. | 4.000 | " |
| 4. | 2.500 | " |

5. Saritutako lanak argitaratu egingo dira.

6. Antolatzaileak erabakiko dabez sortu daitekezan dudak

Arrate:

Umeentzako ipuin sariketa

Eibar'ko S.C.R. Arrate'k, aurtengo mayatzarako ger-tatuten ari dan UMEEN BIGARREN EUSKAL JAI barrurako Umeentzako Ipuin Sariketa bat antola-tuten dau.

BALDINTZAK:

1.—Euskeraz idatziak, argi-taratu gabeak eta errian jaso gabeak. Ipuñak as-matuak izango dira. Nor-naik egiñak.

2.—Neurria: txikiena fo-lio batekoa, eta aundi-ena lau foliokoa. Makiñaz ida-tzita, bi lerrotara. Bakoi-tzetik bi ieki edo kopia.

3.—Epea: apirillaren az-kenerrako zuzentza onetara biadu:

S.C.R. ARRATE. — c/Los Zuloaga, 3 — EIBAR. Comisión de Cultura Vasca Para el Concurso de Cuen-tos Infantiles.

Ipin bakoitzak firma or-dez eizzen edo lema bat ekarriko dau, eta estalki itxi batean lema ori egillea-ren izen eta zuzentza osoa-gaz.

4.—Maikoak: Euskaltzain-diko bi eta S.C.R. Arrate'-ko beste bi.

5.—Erabagia: 1966'ko mayatzaren 19'an, S.C.R. Arrate'ko Antzokian arra-tsaldean egingo dan jai baten barruan.

6.—Saria: bat eta bera bost milla pesetakoa.

- 600 urte Gernika sortu zanetik
- Ori dala-ta aparteko jaiak antolatuko dira
- Dantzari, txistulari ta euskeraren egunak, bertsolarien kanpeonatu, ipuin ta ensayo sariketak t.a.

Oraingorako ezta egongo bizkaitarrik Gernika sortu zanetik seireungarrenko urtea aurten ospatuten dogula jakingo ez dauanik. Ille oneetan egunerokoak be or ibilli dira zarataka jai orreek dirala-ta zeozer esan gura naian. Egunak zear ainbeste artikulu agertu dira, baiña oraindik ez da agiri tajuzko barririk. Gernika-n bertan be eritarrak beintzat ez dakigu oraindik kontuxu ezer be. Ori bai, sortu zanetik seireungarrenko urtea ospatuteko aparteko jaiak antolatuko dirala, ta ia-ia besterik ez. Jentea luzarotik itxaroten dago, ta arrazoiaz gaitera egon be, baiña antolatzaillak ez dabe egin gura berbarik. Zer dala-ta? Bear bada, eurak gura dabena egiteko, edo jai orreeri eurak gura daben sentidua emoteko. Batek ba daki.

Ordua be ba zan da, azkenetan asi gara zeozer entzuten, askorik izan ez arren. Agostuaren 22-garren egunean "Dia del Txistulari" ospatuko ei da. Egun ortan Euskal-erriko Txistularien lagundikoek 400 txistulari batuko ei dabez erri onetan. Goizeko eztaikit zer ordutan alboradea eukiko dogu "Alkate soñua"-gaz. Meza Santuaren ostan, beste alarde bat.

Maiatzeko egunen batean "Dia del Dantzari" jaiun Euskal-erriko dantzariarik ospetsuenak batuko ei dira. Seguruenetik auxe be jai ederra izango da ezer izatekotan. Egunerokoak eztabaideetan sartuta dagoz euskal dantzak beti oraingolakoak izan bear dabezan ala ez. Nik neuk onen gain ezin dot esan aparteko gauzarik ulertu be ez dot egiten askorik eta. Bear bada egun ori izango litzake egokienetariko bat eztabaidak argi ta garbi jartzeko.

Noiz jakin ez arren, beste egun batzuk be bai ei dagoz antolatzaillan gogoan seigarren urtebetetze au ospatuteko. Onetariko bat "Dia del Vasuence" deritxona da. Izan be, zentzu bakoa litzake gure izkuntz zarrari garrantzaririk ez emotea, euskal-erriko urburuaren jai batzuk ospatularakoan. Euskaldun geranok geiagotan zintzoago artu bear genduke bertso zar aaren erakutsia:

Eguzkiaren
argi bage
ezer eztauan lez
bizirik,
gure euskera zar
maite barik b:
ezta euskotar
ezirik.

Egi biribilla bertso onek adierazten deuskuna ta zoritarrez gaurko euskaldunak askotan gogoan ezlaukena. Ortarako, Euskal-erri osoan eta gure uriburuzat daukagun Gernika onetan euskera sendotu ta zabaldu teko egun au primeran etorriko dala deritxot. Ainbeste dago oraindik euskerearen alde egiteko egon be!

Egun ortan "euskeraren eguna" ezezik, beste aparteko gauza batzuk be egongo dira: Euskal-erriko bertsolarien kanpeonatu, ipuin eta ensayo sariketak, euskal-komediak t. a. Ez dakit —nik beintzat ez dot entzun ezer— euskal liburuaren feriarik egongo danik. Oraindik asko ezala Durango-n Gerediaga-koak antolatu eben euskal liburuaren azo-keak ikaragarritzko artea euki ebala edozein daki. Gernika-ko jai-aldi onetan zergaitik egin ez beste ekinaldi bat eusko kulturea zabalduten? Antolatzaillak jakin bear leuke gaurko euskaldun gazteok ez garala konformetan euskal folkloreakaz bakarrik. Zergaitik, bada, aztu eta desgin gure erriko gaztediaren eskari au?

Beste aldetik jarri daiguzan gauzak garbi: geure euskera geroago ta indar gitxiagi aukiten badao, ez ete da izango orain arte kontuxu folklore utsagaz beti bizi bear izan dogulako? Txistua, tanboliña ta dantzak ondo dagoz, ondo baiño obeto. Baiña ez dira naiko. Orixe da antolatzaillak kontuan euki bera leukeena. Kontuan euki bakarrik ez, baita orren alde zeozer egin be. Gure Gernika onetan ospatuko diran jai onek ez daitezala geratu folklore utsean!

Eztago zertan esanik jai onek euskaldun guztioztako zer-esan berezi bat euki bear dabela. Sentidu ori antolatzaillak argi agertu bear leuke guztion aurrean. Penagarria izango litzake izan be sentidu ori aztutea, eta penagarriago beste batzuekaz konfundidutea.

EA-tik

Ea, izango da Euskal-erriko erririk txikiena, izenez. Bere ondoan, Ibarrangelu, Elantxobe ta abar, zatiak dozuz izenez. Izatez be, Ea, ez da aundia. Zenbat ba...? Lareun? Geien botata be orixe. Udan iru millara be eltzen eida. Zer dala-ta? Zorioneko plaia ba... , eta zoriobeko bilbotarrak. Izen barria be ipini deutse-ta: "Bilboko kunia". Bilboko ume zoster guztiak, udaz, bertan batzen diralako.

Baña... , ez umeak bakarrik, antza, ye-ye orrek be eltzen eida noizean bein.

Lengoan, talako ermintxara joan nintzan. Paseo polita, sekulo bada, beste inok joan nai badau. Ain polito ikusirik: tellatu barria, orma konponduak, aterpe barri ta abar, baniñotson bateri, ietarrak oringuan baliente porta dirala. Ermitatxoa ezin obeto ipiñi ebela. Eta ara zer erantzun eustan ietar arek:

—"Bai bear be...! Zer ba...? jentemodu lotsabakoa dau gaur".

—"Lotsabakoa...? Zer ba...?"

—"Jumm...! Zuk bear bada ez dozu jakingo, baña neuk esango deusut: bilbotar asko etorten da ona, umeak batez be. Baña umeak ez diranak be bai; eta ez ume ez gizon ez diranak be bai. Eta onetakoak eizerian, or, gure ermintxoa egitekoa egin ebenak: ermintxaren tellatu ganean, yenka edo dalako ori ez eben dantzatu ba...! Eta tella guztiak txikitu. Nik ez dakit, baña... ye-ye orrek eiziran.

—"Ez da izango..."

—"Bai, eta gaur tella barrigaz ikusi badozu, orrexe gaitik da. Guardi zibil batek ikusi ebazan, eta orduan danak anka. Baño alperriko izan eben burua bezin anka arin eukitea... Zibillak bat ezagutu egin eban, eta andik atera beste guztiak. Baña... kastugua izan zan onera iru milla tella jaso bearra izan eben danen artean. Ederto bota eben izerdia...! Urrengo egunean, batzuek ogean ei-egozan..."

—"Modu ona deritzat, gaztien odol berotasunak otzitu teko..."

—"Bai, orain pozik gagoz Ean, ermintxa ye-ye daukagula-ta.

Egia esan... , polito ipiñi dabe, ipiñi be, eatarrak ermintxatxua. Arpegiz, bauka ye-ye etxura apur bat be. Astirik badaukazu, joan zu ikustera, baña ez bere ganean dantzari egin gero... , bestela zuk be izerdia bota beariko dozu.

LURGORRI-tik (Gernika)

Muxika alderantz egiten dan Gernikako ausoa da Lurgorri. Lurra ez da gorria, baña Lurgorri deituen deusie. Ez dakit zergaitik. Baña bardin da.

Gauza aundi bat egin dabe, denpora gitxian, lurgorritarrak.

Gernika erri aundia be badan lez (8.000), eta parroki bat baño ez daukon lez, erabaki bat artu dabe: Ermitatxo bat daukie, an, euren ausoan, Santa Luzia izenekoa, futbol zelaiaren ondoan, ba... bertan mezea ipintea. Ez pentsa bakarrik, ipiñi be imini dabe.

Orretarako, lenengo, obrak egin dabez: tellatua, altarea, argia, pinturea ta abar. Domeka ta jai guztietan eukiten dabe euren mezia, eguerdiko amabietan. Foruko praille bat joaten da. Ogetamar milla pesetatik gora kosta iake.

Baña ez dira ikeratu. Diruz bai eidago. Santa Ageda egunean, ango morroskeriak, lau milla pesetatik gora batu ebazan ermintxarako. Lau kasulla barri be erosi dabez kopoia erregalau egin dabe, eta orain, tellatu guztiari, azpiko alde-tik, tablex josi gura deutsee. Eta josi egingo deutse ganera. Ikusiko dozu. Amar milla peseta kostako eiake, baña... dirua bai eidago.

Lareun bat persona batzen dira jaiero ermintxatxo ortan. Serio artu dabe euren ermintxea: mezak abestu, kantua ikasi, konfesateko tokia.

Juntia be badaukie, eta beunez zuzentzen dau ango egiteko guztia.

Antonio Zubizarreta.

BALDATIKA-tik

Foruko ausoa da Baldatika. Jente ona ta azkarra. Amaika aize ta euri artunekoa. Baña biotz onekoa. Orrexe... idi proketako tongoak ez balira, ia akatzik bakka.

Gure baldatikatarrik, azpaldi onetan, asmo eta gurari bizi bategaz dabilte. Danak beti itaun bardiña: ia euren kamiñu edo bide barria noiz egingo ete daben. Auxe da Markos eta Lukasen betiko itauna. Ez pentsa gero, Markos eta Lukas onek ebanjelistak direanik, baldatikatarrik baño.

Baña... , beeko aizeak diñoenez, problema aundi bat sortu eiaku: ia kamiñua mundik pasaku dan. Au izaten da, geienetan, gure erri askotako betiko leloa: kamiñua bai, baña nire lurretatik ez gero. Beste ainbat pasa da Nabarnixen.

Baña... ez ikeratu baldatikar, nabarnixtar eta antzeko guztiak: elikoteruak datozenian, dan konponduko dala. Bitartean, eutsi lurrari.

San Blasak dirala-ta, Abadiano inguruan gabiltz. Feriya be inoizkoa bertan da! Eta an ikusitakoa, egia, bai seguru.

Luguna aurrez ebillen, urtero bezela. Oingoan, ordea, iñoizko geien. Nor ez ain toki apañera? Bai ikustekoak Durango inguruko alderdiak! Andik ermitak eta baserriak, mendien sabelean jarrita, erakutsi guraz edo, nundik dagoan bakea; emendik erriak, leunaren eta zabaleraren zear.

Jai-ambiente ortan, feriya egoan aurren. Eta gizaldraren españetan itaune au: beiak zelan joango ete ziran. Jakiña, feriyara etozanentzat, ia geyenak, eta beste iparraideko ganaderu eta baserriarrentzat, au zan ardurazkoena. Ba, jakiña dogu ortik dabillen illuntasuna. Ara: esnearen etorri-kontuak bapezkoak edo txikiak dira —diño ganaderu eta baserriarrik. Eta olan jasotzen da, ikusten gagozana: esne artzea alde batera itxi, eta beiak antzitu edo agortu. Eta alan izan bear. Ba, kontu egunean agirian jartzen jake, bai diru-galtzea, askotan beifnepein, bai lan gogorraren bapeza edo ez ordaintzea. Eta emen, ondore andiko gaitz sakon bat dago. Gure alekuntzan edo alimentaziñoan esnea ta okela oñarriak dirala esan geinkez kontuxu. Eta beiak berantz, esnearen eta okelaren produziñoa bardin, beien giñoan. Eta au gure kaltez dator. Batez ere umien, gaixoen eta zarren kalterako.

Or ikusi leike, baita be, erri baten biziera-malla.

Erantzun argia

Sal-erosketaren erantzuna, barriz, argia da: denporatxoa zan izan be alako feriyarik Abadianon ez genduela ikusi. Ogeita bost milletik berrogeita amar millera bei egunekoak edo korrienteak ebiltzan. Eta kalidade onekoak, jakiña, askosaz be geiagoan.

Fenomeno onen aurrean, arrituta gelditu gara. Nundik ba, orraitino, beiak iñoizko geien eta karuen saldu, ganaderuak eta baserriarrik garraxika dagozanean, esanaz: esneagaz eta txaltxikiekaz ez dagola irabazbiderik? Emen erantzuna:

Lenengo arrazoa: Kortaren garbiketak.

Esne bei faltan gagoz. Gafiñera bearrezkoa zan garbiketeta au. Ganaderuen eta baserriarren galtzea ementxe be ba egoan: bei gaixotetan

(tuberkulosis eta antzekoak). Eta garbiketeta au ederto batean etorri da.

—Esnea ta okela, produziduten dabententzat, izango ete dira ba rentableak gero?

—Ez. Beste gauza askoren bearrean gagoz. Esate baterako:

a) Pentsuen kontua

Pentsuen "miraria". Orretan dagoz batzuk, mirarien bat sortzen ete dalakoan asunto onetan. Ba, siketa edo edurtze bat ganean daukoguean, pentsuen prezioak gora ta gora doaz, akabu barik. Eta au ezin daiteke izan. Bearrezkoa izango litzake almazenejari, prezioari, eta pentsuen suministroari neurri bat jartzea.

b) Okelea

Emen be mirariak edo mi-

rari antzekoak ba dira. Esate baterako, txalak eta saldutera gozanean, okelaren prezioa beera dator; karnizerietan, ordea, erosleak erostean, gora. Gauza polita gero! Eta alantxik diferentzi makala jarri be, guk artzen dogunen artean, eta erosleak pagatu bear dabenen artean, etorri ori okela egiten dabeneri, bape ere etorri barik.

Problema onen erabakia

Problema onen soluziñoa dago, nik uste dotanez, estudio lasai eta sakon baten, bear au jausten jagokenen artean. Eta au txar aundiagorik etorri baiño len. Ba, ezin geinkez ukatu, orraitino, gure erria ez dala aproposkoa ganadua esiteko. Begira ostantzian. Nun olako bedar edarrik eta...?

Etxerre.

(Lenengo orritik)

onak diralako.

Esate baterako: "Ye-ye" dantza ori Aprikako lur puntan sortu bada be, minutu gitxi barru emen daukagu. Eta jenteari gustetan baiako, telebisiñoan edo erradioan mille bider dantzatu eta entzungo da. Azurretaraino sartu arte, jo eta ke? Eta nork kendu gero euskal-gaztedian "ye-ye"-ren influentzia leku guztietan orixe besterik ikusten eta dantzaten ez daba? Iñork bez. Ontan ez dago zer egiterik.

Gaurko euskal-gaztedia ez da joan diran 30 urteko lakoa, itxia, ez. Gaurko euskal-gaztedia alboko nazioetako prozesu-istorikoetan sartuta dago. Eta ortik ezin leikio iñork atara bere burua.

Baiña guk darabilgun kuestiñoa beste bat dala uste dot: ia euskal-dantza, "ye-ye" ritmoagaz piska bat naastu bear

EE.UU.-ko UNIBERSIDADE BATEN EUSKERAZ

Urte beronen zezeillean asi dira linguistika eskolak, elburuztat euskera daukela EE.UU.-ko GEORGETOWN UNIVERSITY deritxakon Unibersidadean. Eta ez dira, gero, asi, lendik ezer be eztakieneri zeozer erakusteko asmoakaz; lenagotik be ainbat dakieneri geiagoko erakustekotan baiño. Inbestigaziñoetarako ondo gertautu atarako dira —alan gura dabe bentzat— or ikasiko dabena.

Georgetown University au, Jesusen Lagundiko prailleen ardurapean dago, ta EE.UU.-ko Unibersidade katolikuetatik zarrena dogu.

Pentsa daikegu ze, Ameriketako lurrek opa bear eutsoenela euskalerriari orrenbeste ta geiagoko be. Amaikaxo euskaldunek emon dabe euren bizitza bertan, izan be. Ostera, bertan entzun eta irakurri daitekezen abizenak lekuko.

Eta zelan ezkara ba, baita be poztuko Jesusen Lagundikoen ardurapean erne dala erabaki au jakitean! Izan be euskalerriko azi baten ondoreak, Iñazio deunaren semeak doguz. Lenagotik be asko zor deuto Euskalerriak Jesusen Lagundiari, baiña baita be Lagundiak Euskalerriari; sormena ezik, santu batzuk be emon deutoz-ta.

Lenagotik be, egin da ainbat alegiñ euskeraren etorburua ta aidetasunak aurkitu guraz, bai euskalerrian bertan ta ametik kanpora be. Ta baita aide antzekoren batzuk aurkitu be; baiña ondiño-karren eldu barik dago gauzea.

Ia ba, akabuko, zeozer argitasunik egiten dan.

dan edo ez, alegia. Eta ezezkoan gagoz. Ez dago zertan naastu bearrik.

Euskal-dantza dantzaten dogunean, dantza daigula euskal-dantza garbi, ez "ye-ye"-gaz zikinduta. Eta "ye-ye" dantzaten dogunean, dantzatu daigun "ye-ye" garbi, ez euskal-dantzagaz naastuta. Euskal-dantzak "ye-ye"-k baiño sustrai sakonagoak daukaz eta uste dago merezi dabela gure errespeto osoa.

Ez dogu "ye-ye" ori bastartu nai, ez; "ye-ye" Euskalerrian be bear dogu gaur, beste nazioetan bear dabenez. Baiña ez daigun naastu euskal-dantza "ye-ye"-gaz olan geiago aurreratuko dogulakoan.

Karmel.

Gernika ipuin saria

Gernika sortu zonetik seireungarren urtebetetzea ospatzeko eskeintzen da.

Antolatzailla Euskaltzaindia da, Bilboko "Radio Popular"-ko Euskal Folklore ta Kultura Taldearen laguntzaz eta Gernika-ko Ayuntamentuaren babespean.

Oñarriak onek izango dira:

1. Euskeraz edozein euskalkitan egindako ensayoak sarituko dira. Sekula argitaratu gabeak izan bear dabe eta luzeera, gitxienez, folio neurriko ogetabost orri alde bakar batetik makiñaz idatzita eta lerrotik lerroa uts bat utziaz.

2. Lanak Euskaltzaindiaren etxean artuko dira (Ribera, 6 — Bilbao) 1966 agostuaren 31-rarte.

3. Iru kopia baldu bear dira lema bategaz firmatuta, lemaren giltza estalki itxi batean dagoela, au da, autorearen izena eta zuzenbidea.

4. Juradu bat izendatuko da eta artutako lanak ikusi ondoren urrengo sari onek, Gernika-ko Ayuntamentuak eskeiniak, emongo ditu:

1. 10.000 Pta.
2. 6.000 "
3. 4.000 "
4. 2.500 "

5. Saritutako lanak Gernika-ko Ayuntamentuak argitaratuko ditu eta gero autoreak izango dira lanen jabe.

6. Antolatzaillak erabakiko dabez sortu daitekezan dudak.

BEREKOETXEA AIZKOLARIEN TXAPELDUN



Martiaren 6-an Anoeta-ko belodromuan España-ko aizkolarien irugarren txapelketea izan zan. Aizkolari guztiak euskaldunak, ori bai. 10.000 ikusle, zale-tasunak eraginda.

Onetariko lenengo txapelketea 1950-e'io martiaren 3-an izan zan. Orduan be napar bat txapeldun, Garziarena; naiz-ta segiduan Luxia-ren kontra galdu egin bear izan. Bigarren txapelketea, barriz, igez, urtarrillaren 17-an. Polipaso irabazle. Aurten, ostera, irugarren txapelketa onetan Berekoetxea izan dogu txapeldun, ta bigarren Aztibia —au be naparra—, España-ko neska-to guztiak ondoren jabilkozana, noizbait Uzkudun boseolariak España ta Frantzikoak ebilkezan an-

tzera. Beste noiz ibilli ete da jente ori euskaldun baten atzetik...

Ona emen zazpi aizkoarien edade, neurri ta beste jakingarriak:

- 1.—**Migel Berekoetxea**, Gorriti-koa (Naparro) 23 urte, luzeran 1'78, 85 kilo.
- 2.—**Patxi Aztibia**, Leiza-koa (Naparro) 23 urte, luzeran 1'78, 83 kilo.
- 3.—**Isidro Astigarraga** "Errekalde", Azkoiti-koa (Gipuzko) luzeran 1'91, 90 kilo.
- 4.—**Migel Irazusta**, "Polipaso", Hernani-koa (Gipuzko), 40 urte, luzeran 1'81, 95 kilo.
- 5.—**Marzelino Zeberio**, Ataun-goa (Gipuzko) 33 urte, luzeran 1'76, 80 kilo.
- 6.—**Antonio Arretxea**, Sunbila-koa (Naparro) 27 urte, luzeran 1'80, 82 kilo.
- 7.—**Jose Mari Galparsoro** "Alberdi", Beizama-koa (Gipuzko), 32 urte, luzeran 1'90, 75 kilo (Neurri polittak).

Bakoitzak 12 pago-gerri eukazan: lau kanaerdiko (54 pulgada 1'25 metru) lau 60 pulgadako ta beste lau 72 pulgadako. Denpora oneek biar izan ebezan tronku orreek ebaitteko:

- 1.—**Berekoetxea**: 44-29
- 2.—**Aztibia**: 49-25
- 3.—**Errekalde**: 50-22
- 4.—**Polipaso**: 52-53
- 5.—**Zeberio**: 53-33
- 6.—**Arretxea**: 53-40
- 7.—**Alberdi**: 60-29

(Zortzigarren orritra)

Kristiñau munduan zear

Politikarik ez daukenak tsoen eginba

Katolikuak eta Politikea

Zer da politikea kristiñauen-tzat? Asuntu onen gaiñean artikulu interesante bat agertu da Pariseko ESPRIT illerokoan, urtarrilleko numeruan. Bere egillea, Robert de Montvalon da.

Beste gauza askoren artean, auxe diño: "Kristiñauak begi barriak asi dira politikea ikusten. Fedeak diñosku, munduaren historia gizonak egiten dabela, eta egikera orretan eurak bakarrik ez dagozala. Orregaitik kristiñauak bete betean siñstuten dabe, politikako gauzak Jaungoikoagaz zerikusi aundia daukela. Jaungoikoak ardura aundia gugaitik artzen badau eta guk Jaungoikoagaitik ardura aundia artzen badogu, naitanez lur onetako goraberetan ardura aundia artuko dogu, eta olan munduko erritar benetakoak izango gara".

Robert de Montvalonen ustez, zeregin orretan katoliku guztiak sartu bear dira. "Gizonak, edo batera biziko gara edo batera ondatuko. Politikeak ezin leike beste eginbearrik euki, auxe baiño: emon gizonen arteko bizitzeari benetako diñidadea, bizitu gizonen artean alkartasunaren kontzientzia. Politikea orixe da: jakin zer gura daben besteak, euron alde lan egiteko.

Politikea ez gara gu, besteak baiño. Politikea gizon guztien arazoa da, ez bakarrik kristiñauena. Guretzat gaiñera, berez lez urtetan deuskun gauzea izan bear litzake".

Euskaldunen eritxia

Euskalerrian be ba dagoz, Robert de Montvalonen antzera pentsetan dabenak. ZERUKO ARGIA asterokoan, zezeilleko bigarren numeruan, ideia oneek azaltzen ditu Saizarbitoriak: "POLITIKARIK EZ DAUKE-NAK, EZ DABE SOZIEDADEARI ZOR DEUTSOEN EGINBEARRA BETETAN. Olako gizonak soziedadetik aparte bizi dira, politikarik euki barik gizar-tean ezin bizi leiteke-ta.

Politikea, munduko gauza bat da; eta munduan pasetan direan gauza guztiak lez, politikeak beti dauko zerikusia munduan bizi gareanokaz. Tontuena da begiak itxitea.

Politikea, gizarteari lagunduteko jakabide bat da: lan egin, naziñoak bere elburua alik ondoen lortu daian.

Politikea, bearrezkoa da. Egin daigun politikea. Benetan sentien dogun politikea. Soziedadeari lagunduko deutsola barru barrutik siñstuten dogun politikea".

Kapellau Militarren jantzia

Joan dan urtarrillan, Holandako ejerzituko kapellau protestante batek esan dau, berak ez dauala ofizial gradurik euki gura, eta aurrerantzean ez dauala militar ezaugarrikerik eroango, ez uniformerik, ez galoirik, ez izarririk, gauza orreek eleizgizon baten zereginagaz ifondik ifora konpontzen ez direalako.

De Niewe Linie asteroko katolikua- ren ustez, eleizgizon protestante orren erabagiak "meritu aundia dauko, ejerzituko kapellauaren alderdi biak —zeregin pastoral ta autoridade militarra— eztabaidan ipiñi ditualako; eta katolikuak, sartu egin bear dira eztabaida orretan".

Aita Wentholt kaputxiñoa, periodikuak esandakoaren kontra jarri da. Aita Wentholt, kapellau kapitana da,

eta Pastoral Militar Zentruko presidente. Bere ustez, gauzak ondo dagoz oraiñarte lez, eta ez dago zetan eztabaidarik sortu eragin asuntu onetan. "Ejerzituan —diño berak— oso gitxi dira, kapellauen uniforme ta galoien kontra dagozanak. Soldadutzea egin daben guztiak ondo dakie, gu militar- rrek ez gareana. Ejerzituan inportantzia aundia emoten jake militar graduari eta bakoitzaren autoridadeari. Kapellautzat gauza normala da, militarren mentalidade ori ontzat artzea. Ori egingo ez bagendu, geitu egingo litzake Eleizaren eta militarren arteko distantzia, eta Konzilioaren espiritua- ren kontra joango giñake". Aita Wentholten ustez, berak lez pentsetan dabe Holandako kapellaurik geienak.

Ori gorabera, katoliku asko ez dagoz

konforme Aita Wentholtegaz. Ona emen zer diñoan De Gelderlander egunerokoak, urtarrillaren 12-an: Euren bokaziñoz eta euren ofizioz, eleizgizonak ezin leikee uniforme militarrik eroan. Ortxe dago problemaren untzea". Eta urtarrillaren 21-ean, pentsamentu berau agertzen da editorial baten De Tijd egunerokoan: "Gure eritxian, kapellauen uniformeak naastu egiten dau jentea, eta orregaitik askoren aurrean bat eginda agertzen dira sazerdozioa ta ejerzitua. Kapellauen militartasunari euren abade-tzeari baiño inportantzia geiago emoten badeutsoe, orduan militarren mentalidadea ez da zuzena, ez da artea. Eta kapellauak euren uniformeak, euren galoiak eta izarrak alde batera itxiten ez baditue, ez dabe ifoiz militarren mentalidade oker ori aldatuko".

ez dabe soziedadeari zor deu- arra betetan.

Dialoguaren berrizana

Aspaldion, berba asko egiten da dialogua dala ta ezta. Eta zer da dialogua? Ona emen, ZERUKO ARGIA asterokoan, len aitatu dogun numeruan, Ibalanek diñoskuna: "Dialogua da norberaren asmo, eritxi ta ideiak alkarre-ri agertzea. Orretarako, alkarregaz zindo, argi ta garbi berba egin bear da. Zuzen, fede onez eta errezelo barik. Begirune ta errespetuagaz entzun alkarre-ri, norberaren ideiak diferenteak eta kontra-riok izanarren".

Egian, justizian eta maitasunean biziteko, dialogua da lenen lenengo egin bear dan gauzea. Euskalerrian asko dira, ideia diferenteak eta kontra-riok daukezanak. Batez bere politika ta ekonomia kontuan. Bakean bizi gura badogu eta Batikano Bigarrenak erakutsi deuskun bidetik joan bearbearrekoa dogu alkarren arteko dialogua. Benetako dialogua. Nire ustez, oraiñarte monologia bakarrik egin dogu. Monologia kalean, monologia etxean, monologia periodikuetan, monologia eleizetan. Eta monologu orrek kalte aundia egi-

ten deusku. Sasoia da gure jokabide ori aldatuteko, beste erri askotan egiten asi direan antzera.

Yugoslavian pasetan dana.

Jeografia apurtxu bat daki-ena, ba dakie non dagoan Yugoslavia. Gaur egunean, Yugoslavia komunisten menpean dago; eta Tito da bertako diktadorea. Kroazia ta Serbia dira Yugoslaviako lurralde nagusienak. Alderdi bi oneetan bizi dira Estaduko habitanterik geienak.

Serbiarrak ortodokoak dira; euren territorioan dago Belgrado, Yugoslaviako uri burua; eta komunistak etorriarte, eurak izan dira Estadua kontrolatu dabenak.

Kroaziatarak, katolikuak dira; eta nazionalistak gainera. Azkenengo gudu mundialean, euren erriaren askatasuna lortuteko, alemanakaz batu zirean eta gerra izugarria egin eben Serbiakoena kontra. Gerra zibil orretan, Serbiarrak izan zirean geien sufridu ebenak: eurretan be-
rreratu millak galdetu ei eben bizia.

Zeintzuk dira, gaur egunean, erlejiñoaren aldetik erri bi oneen arteko errelaziñoak? Pegunta oneri erantzuteko,

Aita
Imanol Berriatuak
artik eta emendik baturiko
Barriak

Periodiku ta errebistetan irakurritako notiziak eta esanak, ez dodaz itzez itz bizkaieraztuten. Baiña al dodan guztia egiten dot, nire tradiziñoetan egiari kalterik ez egiteko.

Informations Catholiques Internationales amabosterokoak periodista bat bialdu dau Yugoslaviara bertara; eta urtarilleko bigarren numeruan argitaratu dau arek ikusi ta entzundakoa. Ona emen, beste gauza askoren artean, periodista orreri Yugoslavian esan deutoena:

Periodista katoliku batek: "Kontzilioari eskerrak, Eleizeak artu-emonak euki gura dau mundu guztiko gizonakaz. Geuri toketan jaku orain, asmo orren aplikaziñoa gure errian egitea. Eta lan orretan, beste iñor baiño lenago, ortodoksoak euki bear doguz kontuan".

Belgradoko obispo katolikuak: "Nik ez dot iñoiz difikultaderik euki ortodoksoakaz. Nire artu-emonak, anaia batenak izan dira beti eurokaz. Al dodan guztia egiten

dot, alkar obeto ezagutu, obeto artu, obeto ta geiago maitate izateko".

Abade katoliku batek: "Alde bietako eleizgizonen artean, errelaziñoak ez dira oraindiño onak; baiña asko aurreratu da puntu oneetan. Len, abade katolikuak eta ortodoksoak kalean alkar topetan ebenean, alhora begira joaten zirean aurrera; orain barriz, agur egiten deutoe alkarre-ri".

Ortodoksoen patriarkeak: "Aztu lengoa, ez gorde gorroto ta asarrekontzarrik, alkar ulertu, zabaldu barrua alkarre-ri: orixe egin bear dogu, Eleiza bien batasuna lortuteko".

Profesore ortodokso batek: "Oraingo situaziñoa aldatuteko, katolikuak emon bear ditue lenengo pausuak. Gure ustez, Eleiza katolikuak, beste edozer gauza baiño lenago, benetako damua agertu bear leuke, katolikuak gerra denporan egin euskuen persekuziñoagatik. Gure artean asko dira, orduan sufridutako gogortaden seiñalea euren gorputzean oraindiño daroenak; eta askoz geiago dira, orduko gauzakaitik katolikuen kontra erresentimentu aundia euren biotzetan gordetan dabenak; joan direan urteetako historia triste au sakon sakon idatzita daroagu geure barruan. Orregaitik, historia baltz ori Yugoslaviako Eleiza katolikuak kondena balei, argi ta garbi erakutsiko leuskigu bere borondate ona. Obispu guztiak batera, eta ez arek edo onek banazean, olako deklaraziño bat egingo balebe, berbertan obatuko litzakez katolikuen eta ortodoksoen arteko errelaziñoak".



Udan peregrinañoa Jerusalem'era

Jesukristo Gure Jauna jaio ta bizi izan zan lekua ta an inguruko bazter zoragarriak ikusteko gugari aundia izan da Kristoren jarraitzaileen artean. Antxiña leku santu ariek ikusteko etzegoan gaur lako aukera eta egokitasunik. Erromeslariak euren gurariak beteteko bide luze eta neketsuak egiñ bearrean agertuten ziran. Gure egunetan bide orreik egiteko aukera aundiak daukie erromeslariak; trenak, autokarrak, itxasontziak, avioiak, eta abar. Gure asabaen bide-aldi neketsuak atsedenez heteriko eta lilluragarriak biurtu dira. Gaur orrelako erromes pozgarri bat egiteko naikue da diru mordoska bat eukitia. Gaur olagintzan dabiltzan biargiñak be, urte osoan diru apur bat aurreratu, eta euren oporraldietan, uda partean, edo erri barrutik edo erritik kanpora, euren bide-alditxoak egiten dabiez. Eta ondo egin be egiten dabie, irabazita be badaukie ta. Askok erromes luzetxoago bat egiteko lau edo bost urteetan ibillaldirik egin barik dirua aurreratu eta ibillaldi luze bat egiten dabie. Badakit euskaldun askok Jaungoikoaren Semea gizon egiñ eta bere ibillaldi, egite eta mirariekaz deundu ebanan lekuek ikusteko apeta aundia, gose aundia daukiela. Oin-txe daukaze ba gura dozuen

danok aukera edo okasiño ederra. Bilboko Prantziskotarrak Jerusalem'era erromeri bat gertatuten asi dira. An erromeslariak zenbat leku santu eta zenbat oroigarri ikusten badiezan esan be eziñ leike.

Jesus jaio zan lekua, Egipto'tik biurtu eta Maria eta Josegaz ogetamar urterarte bizi izan zan lekua. Ama Birjiñaren iturritxoa eta bertatik ura eran be bai. Karmelo mendia, Tabor mendia, Jesus aintzalduta zeruetara igon eban eleiza, Cenáculo edo Jesussek bere azken afarian ogia eta ardaua bere aragi eta odolean biurtu eta Eukaristia irazan edo fundatu eban eleiza, Espiritu Santua Ikasleen ganera jatxi zan eleiza. Getsemani, Oliboetako ortu santua, an Jesusen neke eta eriotzaren lekuko edo testigu izan ziran olibo zaarrak, bi mille eta geiago urte dabiezanak orañdik oliboaleak emoten babiezanak. Jesussek Lazaro bere lagun aundia herbiztu ebien eleiza, Jesussek Jerusalem'en aurrean oni gertatuko jakozan kastigu eta gertae-ta negargarriak gogoratu eta negar egiñ eban eleiza. Jesussek bere ikasleei Aitagurea erresetan erakutzi eutzen eleiza. Santo Sepulcro eleiz aundia eta onen barruan Jesus obiratu ebien eleizatxoa. An erromesla-

riak itzal edo errespeto aundi bategaz banan-banan belaunikatu, auzpeztu eta muñ goxoak emoten deutzie obi ganeko arri santuari eta orduan euren barruan sentituko dabiezan biotz ikutzeak eraginda ixuriko dabiezan negar malxo goxoak ez dabiez aartzuko euren bizitza guztian. An ikusten dabiez Jesus epaitu ebien lekua, Jesuseri zigorkadak emon eutziezan zutoiña, Jesussek egiñ eban Kalbarioko bidea eta barikuan Prantziskotarrak kalbarioak egiñ be bai. An Jordan ibaiia, Jesus bataialu zan lekua, eta

abar eta abar.

An gutxi bada ibillidean, aruntzerakuan eta onuntzerakuan ikusten diran monumetno eta oroigarriak eta an eta bidean ikusten dan gendetza zer da? Enda edo arraza guztietakoak, kolore guztietakoak, jantzikera guztietakoak, berbaketa guztietakoak. Orrelako ibillaldietan jakintza edo kultura uguritu egiten da eta gizakunde guztiagaz alkartasun edo anaidade aundi bat egiteko gurari edo gogoak sentitzen dira.

AITA IBABE

PEREGRINAÑOAZIÑO JAERUSALEN'ERA

Bi erromes-talde. Lenenguak Irun'dik urtengo dau Garagarrillaren 26'ean (julio 26) eta iraungo dau 31 egun. 26.000 peseta kostako da.

Bigarrenak Irun'dik urtengo dau dagonillaren 30'ean (agosto 30) eta iraungo dau 24 egun 23.000 peseta kostakoda.

IBILBIDEA: Irun, Marsella, Nápoles, Atenas, Haifa, Carmelo, Nazaret, Tabor, Tiberiades, Jafa, Tel-Aviv, Cenáculo, Ain-Karem, Paso de Frontera, Jerusalem, Samaria, Emaús, Jericó, Mar Muerto, Betania, Olivete, Getsemani, Damasco, Beirut, Alejandria (Cairo), Nápoles, Marsella, Irún.

Izena emon edo ezer itaundu gura dabienak idatzi: R.P. Comisario de Tierra Santa, P.P. Franciscanos, Irala, 8. BILBAO.

NESKALAGUNTZEN ARLOAK

Urtero-urtero, kristiñauen artean famili barri asko sortzen dira. Ta egunero andra-gizon asko ezkontzak, bear dan moduan bizitzeko, zer esan gura dauan jakin nai an ibiltzen dira.

Ezkonbarriak lenengo egunak pozik eta eder to igaro dabez, prolema bat be ezta euren artean sortu, bizitza, guztia eztat betea azaltzen jake. Baiña, egunak joan eta prolemak etorri, konpondu batzuk eta... ara bestelako batzuk be!

Zelan ba lenengo momentutik ezkontza bidea pasu segurukaz asi?

Ta semetxuen biotzetan zelan sortu erain Jaungoikoaganatzako jokerea? Eziten gatxa dan semeari zer egin?

Amalau-amabost urteko gazteeri ze modutan lagundu edade ortako prolemak ondo konpon-tzen?

Lagun denporan edo ezkongaietan bear dan moduan alkarren artean ibilli daitezen zelan lagundu semeeri?

Ta sarri, auzoan edo, ikuste doguzan prole-maz heteriko andra-gizonek aurrean ze aktitu-de artu bear ete dogu, kristiñau garean ezkerro?

Etxean bear dan batasuna, aitarean eta amaren artean, guraso eta semeen artean, zelan indartu eta sendotu? Gaur egunean asko baidira epel-epel bizi diran andra gizonak, eta baita beste asko alkar ikusi eziñik dagozanak!

Gaur beste problema gogor bat agertu jaku

semeen kontuan be. Zenbat seme euki bear ete dira ba? Ta zer egin bear geiagorik ez eukiteko, heterik ez eukiteko arrazoiak euki ba-daukaguz? Metodu guztiak eztira onak, ezta intentziño guztiak be. Zelan jokatu bear ete dau gaurko egunotan benetako kristiñau dan batek prolema onek aurrez-aurre topetan dabezanean?

Famili baten sortzen diran exijentziak asko ta gogorak izaten dira. Obligaziño askoz heterik topetan dira andra-gizonak bata besteari buruz, gurasoak semeeri buruz, eta semeak gurason eta alkarren alde. Kristiñautasuna problema onetatik aparteko zeozer bat eta da gero? Elizan egin bear dan asteroko ordu erdia bakkarik? Kristiñau benetan izateko etxean eta soziedadean bete bear diran obligaziñoak Jaungoikoaren maitasunagaz batu edo bat egiten jakin bear dogu. Kristiñauontzat mundu onan gauz guztiak kristiñau izan bear dabe. Ez gauz batzuetan kristiñau ta besteetan ez!

Prolema guzti orren aurrean ze aktitude artzen dogu? Ze soluziño emon bearko jake? Ba-dagoz ba amaika milla errebista edo liburu prolema orren buruz! Leidutea gatxa dala? Ta, zer da erreza ba? Ganera, jakin gura dabentzat beste modu asko be ba-dagoz egin. Jakin nai dabena, jakiteko bideak topetan baidaki!

Jesus Mari.

Galdakano'ko «Basajaun'eri» erantzuten

“ZERUKO ARGIA”-ren 15'garren zenbakian, euskerea zelan indartu ta zabaldu daik egun edierazo guraz idatzi dozun idazkaltzoua, atsegin izan yat.

“Orain eun da bat eta bi urte —diñozu— jayo ziran Azkue ta Agirre, ta gerotxuango Kampion, Kirikiño, Orixe ta abar'ek, bultzada andia, ikeragarria emon eutsen gure izkuntzari”.

Bai, alantxe izan zan, izan be, “Basajaun” idiskidea; baña, zeuk idazkia orretan ederto diñozun lez, euskal-idazle jakitun areik orduan egin ebena, lan andija izanagaitik, esta izan naikua gal-bidean aurkituten dan ele bat, izkuntza bat gaizkatu edo salbetako.

Baita be, zeuk diñozu: “Euskeldun eta euskeldun eziran euskotar guztiak egin geinke, ta egin biar dogu, zerbait, Euskerea'ren alde;

Gure asaba zarren odola daukogun arte zañetan, agertu daigun euskeldun antza gure arazo danetan, EUSKERA VARRA egarriz ito ez dedin legorte onetan. Egarrri ori ase-dagogun, maite ba'dogu benetan!

Itzak bakarrik indarge dira, egipenak zñaldari; nor zelako dan bere egipenak erakusten dabe argi. Euskaldun batek Euskalerrria'n beti ERDERAU ba'dagi... alperrik esan “SOY VASKONGADO”: erdeldun utsa da ori!

dakianak egin da irakatsiten aleginduz, da eztakionak ikasiaz”. Ederto esana, dago, ori be.

“Kirikiño” zanak erabitzen eban idazkera ber-bera darabizu, zeuk be, zeure idazlan orretan, eta neuk be olantxe idatzi izan neban, edo ointxe lez, giputza izanagaitik, “Kirikiño” berari ikasita, bizkaieraz idatzi izan nebanetan edo bizkaitarrak, bizkaieraz; gipuzkoarrak, gipuzkeraz; naparrak, naparrerez eta Bidasoa'z andikoak andiko eruz idazten ebanian.

Oin, baña, naste-borraste andija sortu dogu, batzuk eta besteok, eta olan, nori irakalsi biar dautsoju euskeraz zelan idatzi? Bide barririk urratzen ibilli barik, zegaitik ez euskeraz idazten irakatsi euskuen jakitun agurgarri alien bidetik jarraitu, izki edo

berba batzuek aldatu biarra ba'dogu-be!

Baña, oingoz ez-nua arazo laban au sakonduten ekitera, ortaz jardunik ezer on lortuko dodan usterik eztaukodalako eta batzuk eta besteok bakotzak aldogun eran gai-jakingarriak idazten jarraitutea obe izango dala uste dodalako, ezbaidea azpegarrietan denboria aiperrik galtzen jarduteke; baña, ni, —entzun ondo— “KAMINAUPI”-k gai-netzaz csan debanaz nago!

Aipaturiko zeure idazlantxo ori, “Basajaun” begiko orrek iznerutu edo bertso-eder-irakazgarri batez amaituten dozu, beroi Arantzazu'ko lekaiide agurgarrien batena izan biar dabela adierazoaz; baña, oker zagoz orretan. Bertso ori, ta ostantzekuok, bizkaitar olerkari andija izaniko Enbeita'tar Kepa ospetsuarenak dozuz ta nire “EUSKERA'REN IRAUPENA” deritxon idaztitxoan daukoazuz:

Jainkoak nai-dau mintza gaizala bakoitza bere izkeraz: Doitxen'n, doitzexaz, egiten dabe, baita Prantzia'n, prantzexaz. Gaztela'n barriz, erderaz beti, zegaitik ez guk EUSKERAU? Gure ele maite onek ezpadau zer ikusirik besteguz?

Ez dago emen “zuri” ez “baltzik”, ez dago “politikarik”'s Euskeldun orok euskera-alde egitia da bakarrik. Ez daigun inork ostikopetu Jaungoikoa'ren gurarik. Euskeltzaletu gaizan, ba, denok, inor be geratu barik!

Ikasi daigun erdera, prantzes, naiz inglesaren elia, ikaste ori ontzat daukogu, baña lenago GEURIA. Izkuntza danak gurgarri dira, aitortu nai dot egia: guretzat, baña, gurgarriena, EUSKERA MAITAGARRIA!

ZELETA.



Telebisiñoa bearrezkoa dogu

Onik ete dakarkigu gero telebisiñoak? Batzuen erantzuna: Txar eta kalte askotxo ta ugari gañera. Dana dala, gitxiñak izan arren zarata ta auts pilloa ateraten dabe. Ez dira ixiltzen bear ez litzaken gaien bat agertu bada, edo ta zeozer irakurri ba-dabe euren lez konforme ez dagon bate-tik. Liburuak be idatziko ditue ñoizik beñ euren pentsa erak errespetatu daien. Barruan ikusi ezin zorrotz bat daroe eta derrigor azaldu bear zelan alan. Ez da asmakizun bat, ez, Gaur gure artean gertatzen ari da.

Oker ibilli ete dabiz gero? Guztiz oker ez dagozala uste dot. Igerrien da ezkerreko begia “audituta” dabela. Illuntasun asko ikusten dabe; bear bada gelegi. Ez dago ia argirik. Pertsona onetaz kaleko jentia “kukupate” denpora-koak dirala esango leuke, ondo esanda egon ez arren. Alan da guztiz arrazoi apur bat dauke. Ipar-Amerikan gertatzen dana euren eserata dator izan be ta. Ez dakizula Vietnam buruz zelan pentsatu, ze partidu artu? Biztu telebisiorea ta laster eukiko dozuz gauzak argi ta garbi; olan pentsatu bear dozu, ez bestera. Komerien bat ikusten ba-zagoz ez daukazu zergaitik zur-zur egon bearrrik barregarri edo txisteak arrapatu ta santzo batzuk botateko. Ez, egon

nasai. Telebislariak aztertuko deutsu barregarri guztia; ta gero esango dutsu: eik orain barre!

Siñistuko ete deustazu? Aolan makiñatxu barregarriko gauzak gertatzen dira mundu ontan. Izatez Telebisiñoa oso sartuta aurkituten da Ipar-amerikan. Famili asko dagoz bizimodua telebisiñoak adierazten duan lez eratuak. Naiko izango da telebislariak esatea: jatordua da, famili orreek jaten asteko; lotordua da, oera joateko, eta era berean beste gauzetan. Au dok izatekoa izan be!

Jainkoari eskerrak aldi argiak geiago dira oraindik. Gogoratuko balitxaku telebisiñoak kalte edo on geiago egiten badau itauntzea poz-pezik erantzungo geunke on asko be geiago sortuten ditula. Bestela txistik barik baztertu egin bearko geunke. Eta gaurtik gaur ez gagoz orretarako. Telebisiñoa bearrezkoa da gaur egunean, eta ia esan daikegu guztiz bearrezkoa dala. Bearrezkoa dala ederto adierazten deusku Batzar Nagusiak. Orregaitik gai onetaz —telebisiño, irrati, teatro, prensa ta abartz— azaldu da dekreto eder baetkin gaurko teknika ta aurrerapenak aipaturiaz. Eleizak bereganatu nai

ditu aurrerapen oneek kristiñau edukaziñorako, animak salbatzeko erabilliaz. Gure Aita Santu Paulo VI'garrenak izatez arrano baten begiak bai ditu. Eta gauz guztien ganetik bere betebearra lortutzeko ez dau erreparorik barri-bide oneek erabiltzeko. Ortik dei egiten deusku dekreto onekin apurtxo bat izartu gaitezan. Ezin daikeguz alboratu daukaguzan aurrerapenak naiz edukaziño, naiz jakintza, naiz sozial kontuetarako. Eleizak begi onekin ikusten ditu aurrerapen oneek. Onartzen ditu. Geiago oraindik: Ugari dai-tezela opa dau.

Benjamin-ek

ERMUA-tik

Txindurri il jaku.

Gillermo Bengoetxea ziran bere bataio'ko izen abizenak; baño Euskalerrrian “Txindurri”-gaitik ezaguna zan.

Lerro onek idazten ari naze-nian oraindik bere illetak egin-barik dira. Oraintxe bertan jakin dot bere eriotza. Au naigabea! bere gau-bela'ra jun eziña. Gaur bertan dira bere elizkizunak. Gizazeme onetan Ermu'ko Euskalzaleak ikusten genduan, Euskal erriko gizonaren irudia, bera zan; ez mutilkotia, baño bau Euskalzalea eta erriar sutsua.

Mendiz mendi Euskalerrri

guztia inguratu eban eta bere ibillerak oso aitatuak izan ziran. Bilbotik urten eta laubost egunien baño geiagotan egiñ ebala diñote, Donosti'tik, Iruña eta Gazteiztik osteria.

Pelota jokuan, txiki txamarranez, ez eban almen aundirik izan bizibidea pelotatik ateratzeko, baño Ermu guztian zabaldua da zelako arteza zan, eta nola “lau perro”-ko pelotariekin Artazo pelotari ikusgarriaren aurka jokatu eta irabazi eban.

Zenbat Euskal-jai eta Euskal abesti bere Apaiz adiskide Don Ramon Leborda tarraz. Euskaldunik bazan, eta Euskalduna izatea, Euskalerrria

maitatzea bazan auxe beintzat, orixe bai zala.

Txindurri eriotzarekin, esan leike J. San Martin'ek Kayetano Kareaga'tak esan eban antzera: “Gure erria ibai batek ebakia izan degu, oitura zaarrak Txindurri'kin jun dira aruntza, eta erdelagaz oitura berriak onuntza”. Orain gure galdera: Noiz agertuko ote da beste Txindurri bat Ermuko errian?

Goian Bego Guillermo, Jau-nak gerturik dotzu leku eder bat bere Jauerrian. (Otoitz bat arpidedun guztieri Euskalzale onegatik)

Aranberria.

Gure baserritarrak alkartzeko bidean

Baserria ankaz gora

Zenbat aldiz entzun deitsee-gu gure baserritarreri euren bizimodua lakorik inork ez daukala erosten. Ni neu be ortan nago. Uste dot gaur baserritarrak daukezan problemak, kezkek eta biarrak ikusita, onetariko bizitzak ez danala bizitzarik merezidu. Izan be baserritarren bizitza ezinezkoa eginda dago aspalditik. Baiña ezinezkoa gaurko ortako martxan segidu ezkeru

Ezinezkoa egiten dabe ainbel problema latzak. Solo ta baso batzuek, 6 edo 8 bei kortan dabezala, 5 edo 6 klase ereiten dituela, baserri baten bizi daiteke zelan edo alan, auzokoek da ioñiz zerikusirik euki barik. Baiña ortara gaur arte pasa dana igaro jaku aurrerantzean be: irabazirik-eza eta atzerapenak ugariak izango dirala, ezin-bizi oneri iges egite-raiño.

Ta ez da ori bakarrik. Gogorrakoak dira oraindik beste ondore batzuk: semeak eskolarik ez, andrak etxetik kanpora gizonari jagokozan biarretan, mutil gazteak ezin ezkondu baserrian ezkondu gura dauan neskarik ez dabelako billatuten;

edo desgaziren bat gertatuten bada be, laguntza barik; urte guztian lan ta lan kaletarrak daukezan atzeko bakaziño-barik t.a....

Alkartasuna: baserriaren

soluziñoa

Baiña egoera onek ba dauko urten bide bat gaurkotik naiko luze ta gatxa izan arren. Duda barik baserritarrak gure balebe, egin leukee euren bizi-modua kaletarra baiño erasoago ta ta nasaiagoa. Baiña gura izate, ez da bakarrik miñagaz baietza emotea. Gura izateko, lenago beste kondiziño asko bear dira, gaur benetan be kontuxu inñondik be ez diranak agertulen. Beste au egia da: baserri-etxe asko beste mundura joan bear dira derrigorretan edo batek ba daki non! Onek danak ez daukela zeregiñik esaten dot ta, beraz, lenbait ariñen beste bide bat artuten badabe bear bada obeto izango jakela.

Alkartasuna bearrezkoa dala esan gura dot, gaurko baserrira aurrera atarateko. Ekarri daigun ejenplu bat. Gogoan daukaguz danok oraintsu snearen

gain izan diran zaratak. Diskusiño onek dirala ta, begira zer esan dauan BILBOKO BASERRITARREN ADISKIDEEN taldeko presidente dan Gardoki ta Mandaluniz-tar Jon jaunak: "...Esnearen benetako kostea 7'39 pta. dira. Denpora alegoretan ta litroko balioan baserritarrak galtzen daua 3'39 pta. dira. Ta bei-jaube dan aldetik galtzen dauana jarriko ba'gendu, galtzea aundiagoa izango litzake. Alan da guztiz be bal-

dan illean —martian— Agraria-koek, "Cámara sindical agraria", "Obra sindical de cooperación", "Delegación de sindicatos", "Cooperativa Beyena" ta beste entidade batzuen laguntzagaz baserritarren artean alkartasuna lortuteko ekiñaldi sendo ta zabal bat egin dabe Mungia, Markina, Gernika ta Yurre aldeko erri ta auzo geienetan. Irurogei erri ta auzoetan egindako kanpaña au sekulakoa izan da izan be.



din baserritarrari lagunduko ba-geuntso, ta au benetan ta ondo, esat: baterako, bei bakoitzetik zelan lortu urtean 4.000 litro esne, bereala ikusiko genduke kostea 6'30 pesetakoa izango litzakela, baiña au bei jaube dan aldetikakorik babe.

Beraz, prolema onek alderdi bi ditu. Lenengoa, esnearen benetako ta legeko saria, au da bera kostatzen dana. Bigarrena, baserritarrari emon bear jakozan irakaste ta azalpenak ta baita tresna ta laboratzeko bide barriak bere, esne-ugaltzea lortu daian, ta 3.200 litrotik 4.000' taraiño igaro daiten".

Izan be, esneak zergaitik balio dau ain gitxi, litroko kokakola batek esat: baterako, 15 peseta balio dauan bitartean? Esneagaz ain gitxi kobretan bada —okela ta beste edozetariko produktogaitik be beste orrenbeste esan bear da— gaurko baserriak txarto organizatuta dagozalako da, duda barik. Ta orrek esan gura dau beste era bat billatu bear dala baserritarrak eureri jagokezan dertxoak lortu gura ba dabez. Era ori, alkartasunetik sortu bear dauala derrigorrez esan bear.

Agrariazkoek lanean

Danok dakigu "Servicio de Extensión Agraria" deritxoan baserritarren aldeko mobimentuaren barri. Baserritarren aldekoa dala esan dot, ta alan da izan be, baserriko prolema-kaz jabetu eta eurak eskatuten dabez an erremedioak billatuten bai dabilz gogoz lanean. Gernika, Mungia, Markina ta beste erri askotako ekiñaldeak ezagunak jakuz danontzako. Pasa

Baiña ez uste izan ekiñalde onnek propaganda utsa izan diranik. Orain arte egin diran onetariko ekiñaldiak emon dabez euren ondoreak. Or dagoz agirian ejenpluzat 11 kooperatiba orreek euskal-erri osoan banatuta. Asteko txarto ez dagoala esan bear; baiña asteko bakarrik, ze 11 kooperatiba ainbeste errietan bromazko gauza bat baiño ez da izan.

Arruti-tar Florentino-k

ESKATUTEKO

TXARTELA

ANAITASUNA aldizkaria artu gura neuke:

Izen abizenak.....

.....

.....

Bizilekua

.....

.....

.....

Erria

.....

.....

Probintzia

.....

.....

Zure izen abizenak argiro jarri mesedez eta guri aolan bialdu: Rev. Anaitasuna PP. Franciscanos Aránzazu—Oñate (Guipúzcoa).

(Laugarren orritik)

Igez saritan 260.000 peseta emon ziran. Aurten, barriz, 350.000 eta aolan banatuak: lenengoari: 100.000; bigarrenari: 75.000; irugarrenari: 60.000; laugarrenari: 50.000; bosgarrenari: 40.000; ta azkenengoeri ogeta bostna milla peseta bakoitxari.

Uste bakoak naiko ondo egin eben. Polipaso geiago egingo ebala uste zan. Geroago jakin zan zergaitik ibilli zan ain txarto: 15 egun aurretik anjina ta gripeagaz egon zalako. Jentea, barriz, Errekalde-k irabazi bear ebalkoan egoan. Berekoetxea-gaz ez ziran fiatzen: besoak jaso ta geiago ezinean geratuteko kapaz zala iñoan Polipaso-gaz milloia jokatuten ikusi eban batek.

Baiña "beso jasotze" orren arrazoiak be azaldu ziran: Berekoetxea be, orduan, zortzi egun aurretik gripeagaz egona zan. (Aizkolariak gripea errez arrapatuten dabela emoten dau. Kontuz gero, grupe orrekaz...!)

Errekalde-n erakustaillez aldatua dau: Yurrebaso da oraingokoa, aizkolari ona au be noizbait. Yurrebaso Errekalde-ren alde egon ei zan. 7.000 pesetako apustu bat firmaten ikusi ebenak be ba dira. Latasa-ren desafiua artzeko idean egoalako egin ebala ain txarto esaten dabe batzuk. Noiz emongo ete deusku azkoitiar onek atsegiñen bat...?

Dana dala, Berekoetxea-k errez irabazi eban. Denpora guztian aurretik ibilli ta bigarrenari bost minutu kendu. Alan da be trunkil bukatu eban, naiz berez naiko nerbiooso izan.

Aztibia-k bere ustegabea emon eban. Azkenengo egunetararte inork ez ekian etortterik izango ebala ala ez. Etorrita be, nok pentseu soldaduzkan egoan mutil bat ain ondo preparatuta egon zeitekeanik! Ain ondo ta bigarren egin gaiñera, Polipaso ta Errekalde-ren aurretik. España-ko barrenetara aizkora zaletasuna eroateko aukera ba dauka onek.

Azkenik, Alberdi be nasai ibilli zala agirian dago. Izan be, ille ontan Arruiz-ko Txikito-ren kontra beste apustu bat dauko, ta, gaiñera 25.000 peseta seguruak eukazan. Ondo etorri izango jakoz bear dan lez apustu orretarako preparaziñoak egiteko. Bai seguru be...!

Joxe Mari Arzallus.